

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2011ko irailaren 16a. VIII. urtea. 2.274. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Eraginkortasunez mugitzeko moduak bultzatu nahi dituzte eskualdeko udalek

Hainbat udalerrik, Tolosaldea Garatzenekin batera, Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin bat egingo dute irailaren 24 eta 25eko asteburuan

Mugikortasunaren Bigarren Eskuko Azoka, Villabonan, eta eskualdeko bidegorri sarean zehar Bizikleta Bira egingo dituzte, besteak beste, jasagarritasuna gizarteratzeko **o4**



Garbiñe Mendizabal, Ibai Iriarte eta Galder Azkue atzoko aurkezpenean. E.MAIZ

Leire Olaberria Txirrindularia

«Errepideko denboraldian erlojuaren aurkako probetan aritu naiz gustuen»

Estraineko aldiz ariko da Leire Olaberria ikaztegiatarra errepideko Munduko Txapelketa batean; «ilusioz eta gogo handiarekin» doa **o5**

Bide Ertzeanekin hasiko dira gaur, Tolosako udazkeneko kultur ekitaldiak

Talde tolosarrak 'Don Inorrez' diskoa aurkeztuko du Topic-en 20:30ean; Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketa urriaren 28an hasi eta azaroaren 1ean amaituko da **o3**

Gizonezko bat zauritu da AHTren Tolosako zatian lanean ari zela

40 urte inguruko leitzarria arin zauritu da enborrak eramateko makina amildegitik behera erori ostean; kabinatik jauzi egin behar izan du eta orkatilan min hartu du **o3**



Egurdian gertatu zen ezbeharra Olarrain eta San Esteban artean. HITZA

Torquemadaren mintegiko lehen bi saioetan Afrikaz mintzatuko dira

Ikasturte honetan hirugarrenegoz eskainiko du Tolosako Ikastn-ek Nazioarteko Gaurkotasunaren Mintegia **o2**

Mikel Nieve Txirrindularia

«Vuelta polita izan da, azken egunera arte mantendu da emozioa»

Hamargarren sailkatu zen leitzarria Espainiako Vueltan, eta lehen euskalduna izan zen **o7**





Orain artean egindako mintegiak oso arrakastatsuak izan direla nabarmendu dute antolatzaileek. HITZA

Afrika hizpide izango da Nazioarteko Gaurkotasunaren III. Mintegian

Hilabete honetan amaituko dira, hain arrakastatsua bihurtu den mintegirako izen-emate egunak

Itzea Urkizu

Datorren urriaren 10etik aurrera, hirugarren urtez jarraian, hasiera emango zaio Nazioarteko Gaurkotasunari buruzko Mintegiari. Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuko Ikastn zerbitzuak antolaturiko saioak izaten dira.

Mundu zabaleko gatazkak, arazoak eta gorabeherak izaten dituzte hizpide, eta ikasturte honetan, astelehenetan egingo dituzte saioak. Zehazki, urriaren 10ean, 17an eta 24an, eta azaroaren 7an, 14an eta 21ean ospatuko dituzte aurtengo mintegiko saioak.

Ordutegiari dagokionez, be-

rriz, mintegia iluntzetan izango da, 19:00etan hasi eta 21:00ak arte, Topic-eko auditorioan.

Afrika abiapuntu

Nazioarteko Gaurkotasunari buruzko bigarren mintegian Afrikari buruzko modulua landu gabe geratu zen. Hau dela eta, aurtengo Afrikari eskainiko dizkiote lehen bi saioak.

Afrika, hamaika arrazoiengatik, itxaropena galdua duen kontinentea da: gosea, gerrak, pobrezia, gaixotasunak, eta abar. Honen guztiaren gainetik ordea, eta Afrikak estatistikak aurka dituen arren, Tolosaldean Ikastn-ek antolaturiko mintegi honetan beste ikuspuntu batetik jorratuko dute gaia. Izan ere, Afrikari ikuspuntu baikor batetik begiratzeko arrazoiak badirela uste dute, eta baieztapen honetatik abiatuta, kontinente horretako lehengaiak buruz, eta hauek ekar ditzaketen garai hobeei buruz ari-

ko dira Topic-eko lehen bi saioetan.

Gainontzeko lau egunetan, berriaz, aurreko mintegian landutako gaiak gaurkotzea da arduraduen asmoa. Bide honetan, Ekialde Hurbila, Amerika, Asia eta Europari buruzko gaiak jorratuko dituzte.

Nazioarteko Gaurkotasunaren bigarren mintegian, aurreikusitako

tako programak aldageta batzuk jasan zituen, eta Japoniar itsasikara eta arabiar matxinadak izan zituzten hizpide. Oraingoan ere, nazioarteko aktualitateko gertaerak iragarazten dituzten lehen-tasun osoa izango dutela azpimarratu dute antolatzaileek.

Izen-ematea zabalik

Tolosaldean Ikastn-eko arduradunek diotenez, mintegiak parte hartzeko eskaera kopurua handia izan da, eta aurreko bi mintegien arrakasta ikusita, Ikastn-ek eskualdeko helduen heziketaren esparruan lekukoa hartu nahi

Afrikako lehengai aberatsetatik abiatuta, ikuspegi baikorragoa jorratuko dute

izan du: «Horretan jarraituko dugu, bizitza osoan zeharrekiko ikasuntza gizarteratzen».

Aurreko mintegiko azken saioan, zenbait ikasle ikastaroan jarraitzeko inprimaki bat bete zuten, erreserba egite aldera. Era berean, mintegiko ikasle ohiek gaur izango dute azken aukera plaza erreserbatu eta ordaintzeko. Izan ere, matrikula ordaindu arte erreserba ez dute berretsiko.

Ikasle berriei dagokionez, berriaz, datorren irailaren 19tik aurrera izango dute izena emateko aukera. 943 65 11 47 edo 615 77 56 78 telefonoetara deituta, nahiz info@ikastn.com helbidera idatzita egin daiteke izen-ematea.

● tolosa@hitza.info

Denbora kudeatzeko doako ikastaroa izango da Kultur Etxean

Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzaz, Lahar Elkargoak eskainiko ditu saioak

I. Urkizu

Esku-hartze sozialean lan egiten duen Lahar Elkargoak antolatuta, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Sailaren diru laguntzaz, denbora kudeatzeko ikastaroa izango da datorren urriaren 3tik 7ra. Kultur Etxean izango dira, 18:00etatik 21:00etara bitarteko saioak.

Denboraren kudeaketa. Nola probestu denbora elkarrekin? deiturapean, Rafael Martin eta Jesus de Agustin hizlariak gidatuko dute doakoa izango den ikastaroa.

Denboraren antolakuntzaz

Lahar Elkargoa, berez adineko pertsonen zuzenduriko elkarte bezala jaio zen. Gaur egun, ordea, erabiltzaile talde desberdinei zuzendutako zerbitzuetan aritzen dira lanean: familiekin, emakumeekin, haurrekin eta gazteekin, besteak beste. Tolosako Kultur Etxean ospatuko dituzten saioak, bereziki elkarrekin arduradueni begirakoak izango dira.

Ikastaro honetan, denbora kudeatzen, edo denbora ez galtzen irakatsiko dute. Izan ere, antolatuzaileen arabera, denbora galtzea zaharkituriko ohituren ondorio izaten da; hala ere, «gizakiok ohitura berekin jarraitzeko joera dugu, eguneroko funtzionamendurako eredu gisa erabiltzen baititugu ohitura horiek». Lahar Elkargoko arduradunek, «ia beti lan bera modu desberdinetan egin daitekeela» defendatuko dute, eta horretarako teknika desberdinak landuko dituzte.

Horrela beraz, jomuga nagusia denbora galtzea eragiten diguten ohiturak moldatzea izango da, aldagaitza pertsonal bat bideratzeko.

Ikastaro dinamikoa

Metodologiari dagokionez, lan egiteko modua parte-hartzean oinarrituko dute. Ideia nagusietatik abiatuko dira hasierako, gero kasu zehatzak praktikan jartzeko.

Gehienenez ere, 20 laguneko parte hartu ahal izango dute. Izena emateko, ade batetik bi telefono izango dira: 663 05 72 23 eta 943 42 80 13. Bestela, formakuntza@lahar-elkargoa.org edo gizalde@gizalde.com helbide elektronikotatik ere inskripzioak egiteko aukera izango da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Jesus Torquemadak gidatu izan ditu aurreko bi mintegiak. HITZA

2011ko USATEGIEN ENKANTEA BIRIGARRO ETA USOA Areso (Nafarroa)	
Tel.: 948 510 327 - 608 928 626	
Donostiatik 20 minututara	
Paradetaraino sarbidea kotxez	
Enkantea Udaletxeko Batzar Aretoan burutuko da.	
1go enkantea: irailaren 17an	Larunbata 19:00
2. enkantea: irailaren 24an	Larunbata 19:00

Nazioarte mailako hiru jaialdi ospatuko dira udazkenean Tolosan

Bide Ertzean taldeak 'Don Inorrez' diskoa aurkeztuko du gaur, Tolosako Topic zentroan, 20:30ean

Asier Imaz Tolosa

Tolosako Udalak udazkeneko kultur ekitaldiak aurkeztu zituen atzo. Egitaraua begiratu gero, nazioarte mailako hainbat jaialdi azpimarratu behar dira: Abesbatza Lehiaketa, Europako Abesbatzen Sari Nagusia eta Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia.

Iraila eta urriaren lehen egunean Zikloia azpimarratu behar da. Antzerki emanaldi ikusteko aukera egongo baita Tolosako taber-



Udazkeneko kultur ekitaldiak aurkeztu zituzten atzo. A. IMAZ

netan. Hala eta guztiz ere, egutegia begiratu, lehen kultur ekitaldi garrantzitsua gaur bertan izango da, Bide Ertzean talde tolo-

sarraren kontzertua; Topic zentroan 20:30ean. Bertan euren azken lana aurkeztuko dute, *Don Inorrez*.

↓ Egitaraua

TOLOSAN ZER?

- **Gaur, hilak 16.** Bide Ertzean Topic zentroan, 20:30ean.
- **Hilak 23, ostirala.** *El Brujo* Leidorren, 20:30ean.
- **Hilak 30, ostirala.** Ara Makilian & Fernando Egozcue Quinteto, Leidorren 20:30ean.
- **Hilak 30, ostirala.** Zikloia egitasmoaren baitan, Kabareta Kultur etxean, 22:30ean.
- **Urriak 7, ostirala.** Kukai dantza taldearen (*Sok*) 21. kuskizuna, Leidorren 20:30ean.

- **Urriak 8, larunbata.** La enana naranja Topic-en 18:00etan.
- **Urriak 14, ostirala.** Patxi Zubizarreta eta Joserra Senperena Topic-en, 20:30ean.
- **Urriak 17tik 23ra.** Gorren Sentibilizatzeko Astea.
- **Urriaren 28tik azaroaren 1era.** Abesbatza Lehiaketa.
- **Azaroak 5, larunbata.** Abesbatzen Europako Sari Nagusia.
- **Azaroaren 11 eta 12.** Zeinu hizkuntzako film laburren jaialdia.
- **Azaroak 18, ostirala.** Ttanta-karen *Ipar haizearen kontra*

ikusizuna Leidorren, 20:30ean.

■ **Azaroak 19, larunbata.** Buenos Aires Titeres-en *El plano transparente* ikuskizuna Topic-en, 18:00etan.

■ **Azaroaren 26tik abenduaren 8ra.** Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia.

■ **Abenduak 16, ostirala.** EME2ren *Tengamos el sexo en paz* Leidorren, 20:30ean.

■ **Abenduak 17, larunbata.** Calamar Teatroyen *Ohe hegalaria*, Topic-en 18:00etan.



Olarrain eta San Esteban artean gertatu zen lan istripua atzo goizean. HITZA

Leitzar bat arin zauritu da Tolosako AHTren obretan

Baso-lanetarako makina balaztarik gabe gelditu zaio, eta kabinatik jauzi egin beharrean aurkitu da

dorioz, trenbidea itxi egin behar izan zuten Tolosa eta Legorreta artean. 13:15ak inguruan zabaldu zuten berriro ere trenbidea.

Alkatea, istripuaren lekuan

Ibai Iriarte Tolosako alkatea istripua gertatu zen lekura joan zen 13:30ak inguruan. Bertan, obrako arduradunekin elkartu zen. Lehenik eta behin, langilearen osasun egoeraz galdetu zuen. Orduan, obrako arduradunek gertatua kontatu zioten Tolosako alkateari. Ibai Iriartek, duela 10 egun eskas, Aldaba Txikin langile bat hil zela aipatu zien, eta atzokoan bigarren langile bat hiltzeko zorian egon zela. Tolosako alkatea oso kezkatuta eta «haserre» agertu zen, azpiegitura erraldoi honetako langileak jasaten ari diren «segurtasun faltagatik». Obrako arduradunak ez ziren ados agertu puntu honetan, baina alkateak 10 egunen barruan bi istripu larri gertatzea ez dela kasualitatea esan zien.

Azkenik, horrelakorik berriro ez gertatzeko egin beharreko guztia egitea eskatu zien obrako arduradunei.

Era berean, AHT Gelditu! Elkarlanak ere istripua salatu zuen ohar baten bidez.

A. Imaz

40 urte inguruko leitzar batek istripua eduki zuen atzo AHTren lanetan, eta arin zauritu zen baso-lanetarako makinarekin lanean zebilela. Ezbeharra 11:40ak inguruan gertatu zen, Tolosako Olarrain auzoan. Obrako arduradunak hainbat langilek azaldu zuten, enborrak eramateko makina amildegitik behera erori zen, olio baleztetara eramaten duen hodia hautsi zitzaionean. Balaztarik gabe gelditu zenean, langileak kabinatik jauzi egitea lortu zuen, baina makinaren gurpilak orkatila zauritu zion. Istripua izan zuen lekuan artatu ondoren, Asuncion Klinikara eramane zuten.

Baso-lanetarako makina 60 metro inguruko amildegitik behera erori zen, Olarrain eta San Esteban auzoen arteko trenbidearen erdian geldituz. Adifeko iturriek azaldu zuten, istripu honen on-

Irudia Tolosa



GARAGARDO FESTAKO LEHEN TOPA

Atzo zabaldu zuten, 18:00etan, Tolosako XIII. Garagardo Festa. Igandera bitarte, 23 garagardo mota dastatzeko aukera izango da Zerkausion. Edariarekin batera, ordea, izango da sabela betetzeko aukerarik ere; besteak beste, Bratwurst eta

Frankfurt saltxitxak, burrunzia, txerri ukondoa eta postreak afaldu ahal izango dira. Zerkausiko barra 18:00etatik 00:00etara bitarte izango da zabalik, eta bertan bildutako dirua herriko hainbat kirol talderentzat izango da. I. URKIZU

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Quad-a.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 quad-a salgai. IAT pasatu du, osagarri asko ditu eta oso egoera onean dago. Interesatuak deitu 600 752 537 telefono zenbakira.

LANA

■ **Lan bila.** Neska euskalduna etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Interesa duenak, dei

dezala 678 88 97 91 telefono zenbakira.

■ **Lan bila.** Tolosaldeko emakume euskaldun bat naiz. 55 urte ditut. Lan egingo nuke 4 edo 6 ordutik. Goizez edo arratsalde. Denda, taberna edo etxeak garbitzen. Kotxea daukat. Adinekoak eta haurrak zaintzea ez dut nahi. Nirekin harremanetan jartzeko, deitu 685 73 60 09 zenbakira.

Mugitzeko modu jasangarrien bila

Garraio publikoaren, bizikletaren eta oinez ibiltzearen aldeko sentsibilizazio kanpaina bultzatuko dute Tolosaldeko herriek

Mugikortasunaren Bigarren Eskuko Azoka eta Bizikleta Bira antolatu dituzte

Eneritz Maiz

Urtero, irailaren 16tik 22ra, Europako hiri eta herri askok Mugikortasunaren Astea ospatzen dute. Garraio publikoaren, bizikletaren eta oinez ibiltzearen aldeko sentsibilizazio kanpaina izan ohi da. Tolosaldeak aurturten ere bat egin du, eta bere Mugikortasun Astea aurkeztu zuen atzo, Tolosan. Aurtengoa, *Eraginkortasunez mugitu zaitez: hobetu zure mugikortasuna!* lelopean izango da.

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Asteak hamar urte beteko ditu aurturten, eta garraio bideen energia eraginkortasuna izango du mintzagai nagusia.

Ibai Iriarte Tolosako alkateak eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak, Galder Azkue Amasa-Villabonako alkateak eta Garbiñe Mendizabal Tolosaldea Garatzeneko Agenda21eko koordinatzaileak hartu zuten hitza atzo eguerdian, Tolosako Triangulua plazan.

Aurtengo kanpainak garraioaren eraginkortasun eragetikoa beharraz kontzientziatu nahi

Joan-etorriak oinez, bizikletaz edo garraio publikoan eginez energia aurrezten da

ditu herritarrek. Azaldu zuten, «gure herrietan, energia iturri fosilak erabiltzen dituzten ibilgailuen kopurua etengabe handituz doa, eta ondorioz, garraioan kontsumitzen den erregai kopurua ere handiagoa da, airea CO2 eta partikula kutsakorren isurpenak areagotuz».

Honenbestez, «ezinbestekoa da gure gizarteak garraio modu eraginkorrago eta garbiagoen aldeko apustua egitea», esan zuten. Honela, «eguneroko joan-etorriak oinez, bizikletaz, autobusez edo treneginez gero, energia aurrezten lagunduko dugu, eta era honetan, gure osasunarentzat eta ingurunearentzat kaltegarri diren isurpenak ere murriztuko ditugu», azpimarratu zuten. Gainera, «errepidean aurkitzen ditugun arazo eta zaratak ekiditen lagunduko dugu».

Bizikleta aisialdiarekin bakarrik ez dela lotu behar azpimarratu zuten. Herrigunean mugitzeko eta lanera joateko bizikleta erabiltzea animatu nahi dituzte herritarrek.

Hori guztia kontuan izanik eta garraio ohituren aldaketa sustatu asmoz, Tolosaldeko zenbait udalek, Tolosaldea Garatzen elkartearekin batera, beste behin ere bat egin dute.

Materiala biltzeko garaia da

Hilaren 24ean, mugikortasun iraunkorrekin zerikusia duen Bigarren Eskuko Azoka egingo dute. 10:00etatik 13:30ak bitartean izango da Villabonako Berdura plazan. Bertan, eskualdeko biztanleek mugikortasun iraunkorrekin lotura duten produktu edo objektuak saltzeko aukera izango dute: bizikletak, kaskoak, patineteak, maillotak, kilometro kontagailuak,.... Informazio gehiago www.tolosaldeagaratzen.net web gunean edo 943 65 45 01 telefono zenbakira deituz eskuratu daiteke.

Mugikortasun Iraunkorraren Astearen barruan kokatutako ekimena izanik, mugikortasunarekin zerikusia ez duen materia-



Garbiñe Mendizabal, Ibai Iriarte eta Galder Azkue izan ziren Triangulua plazako aurkezpenaren, atzo. E. MAIZ

↓ Tolosaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Astea 2011

IRAILAK 24, LARUNBATA

- **Mugikortasunaren Bigarren Eskuko Azoka.** Mugikortasunarekin zerikusia duen bigarren eskuko tresnak, bizikletak, patinak, kaskoak, ... saltzeko eta erosteko aukera izango da.
- **Bizikleta elektrikoak.** Bizikleta elektrikoak egongo dira herri-tarrek probatzeko.
- **Bizimeta.** Ekogune Uribe-Kostako Agenda21eko bulegoaren eskutik, *Bizimeta* izeneko eskualdeko herrien arteko bizi-

kleta elektriko eta ez elektrikoaren mailegu sistema aurkeztuko dute.

- **Villabona.** Azoka Berdura plazan izango da, 10:00etatik 13:30era.

IRAILAK 25, IGANDEA

- **Bizikleta bira, bidegorritik.** Ikaztegietatik eta Asteasutik abiatuta, txirrindulariak Anoetako plazan elkartuko dira. Joakoak txikientzat, zozketak, ... izango dira.

- **10:30.** Asteasutik eta Ikaztegietatik abiatzeko ordua da. Bidean, beste herrietako txirrindulariak sartzen joango dira.

- **Hamaiketako ekologikoa.** 11:30ean, Anoetako plazan hamaiketako ekologikoa dastatuko dute txirrindulariek.

- **Bizibidaia emanaldia.** Zelandar Berria familian bizikletaz egindako *Kiwibidaia* ikus-entzunezkoaren emanaldia eskainiko dute. 12:30ean izango da, ekitaldiei bukaera emateko.

laren salmentarik ez da onartuko. Objektu edo produkturen bat saldu nahi dutenek materiala ondorengo lekuetan utzi beharko dute: Anoetan, kiroldegian; Asteasun, Adunan, Berastegin; Elduainen, Ibarren, Iruran, Tolosan eta Zizurkil, udaletxean; eta Villabonan, alde zuzenetik 943 69 39 80 zenbakira deituta, Udaltzaingoa. Hilaren 21a, asteazkena, baino lehen utzi beharko da materiala leku horietan.

Azokaz gain, bizikleta elektrikoak probatzeko aukera izango dute 16 urtetik gorakoek. *Bizime-*

ta izeneko eskualdeko herrien arteko bizikleta elektriko eta ez elektrikoaren mailegu sistemaren aurkezpena egingo dute. Ekogune Uribe-Kostako Agenda 21eko bulegoaren eskutik izango da.

Igandean, berriz, Bizikleta Bira egingo dute Tolosaldeko bidegorrian barrena. Asteasu eta Ikaztegietatik 10:30ean abiatuko dira txirrindulariak, eta bidean beste herrietakoak sartzen joango dira. Anoetan hamaiketako ekologikoa izango dute zain, eta txikieneko jokoak ere izango dituzte. Indarrak hartu ostean, ikus-entzunezko eskainiko dute.

Tolosaldeko biztanle guztien eskura jarriko dute. Helburu hori lortze aldera, egun gutxi barru Tolosaldeko udaletxe guztietan

Garraio publiko guztiak biltzen dituen mapa osatu dute herritarren eskura jartzeko

egongo da. Era berean, kiroldegi, osasun zentro, kultur etxe eta turismo bulegoetan, garraio publikoaren mapa eta ordutegiak biltzen dituzten esku orriak jarriko dituzte.

Eskualdeko bidegorri sarea guztiz bukatu gabe dagoela gogoratu zuten. Hori dela eta, Foru Aldundiak 2015. urterako egiteko duen Aduna-Tolosa zatia jarraituz egingo diotela adierazi zuten ordezkariak.

Garraioen mapa eskuragarri

Tolosaldeko udalek garraio bide publikoaren erabilera bultzatu nahi dutela adierazi dute. Horretarako zerbitzu guztiak biltzen dituen esku orri bat prestatu dute.

Peugeot Sarean, prezioa eta kalitatea parean

Kalitatea: Zerbitzu profesionalizatua / Doako azterketa 29 puntutan / Pneumatikoetan bermea
Prezioa: Eskatu aurrekontua eta lasaitasunak gehiago ez duela balio ikusiko duzu.

Eskaintzak ondorengo markentzat balio du:

24 HILABETETAN ORDAINTEKO AUKERA

PEUGEOT

TOLOSA MOTOR, S.A. San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

OPORRALDIA DELA ETA ITXITA IRAILAREN 19tik 30era

Pedro Mari Oñano plaza, 1 • ZIZURKIL • 943 692 537

Leire Olaberria Txirrindularia

Leire Olaberriak Debabarrena taldearekin egin du errepideko denboraldia udan. Erlojuaren kontrako Munduko Txapelketan ariko da asteartean, Danimarkan, «ilusio eta gogo handiarekin».

«Ez dut helburu finkorik; ez dakit distantzia horretan nola erantzungo dudan»

Imanol Garcia Ikaztegieta

Mundu mailako txapelketetan eskarmentua du Leire Olaberria (Ikaztegieta, 1977) txirrindulariak, baina inoiz ez du parte hartu errepideko Mundu Txapelketan. Bihar doa Danimarkara Espainiako selekzioarekin, bertako hiruburuan, Kopenhagen, jokatzeko baita aurtengo txapelketa. Asteartean parte hartuko du erlojuaren aurkako proban. 14:00etan hasiko da lehenengo txirrindularia, baina oraindik Olaberriak ez daki bera zehazki zer ordutan hasiko den.

Nolatan parte hartu behar duzu errepideko Munduko Txapelketan?

Aurtengo ibilbidea bazirudien egokia izango zela niretzat, eta pistako Munduko Txapelketa bukatu zenean, Ramontxu Gonzalez Arrieta hautatzaileak deitu zidan. Une honetan Olinpiar Jokoa urtebetera ditugu, prestaketa aldiari nago, eta udako hiru hila beteak errepidean aritzeko egokitu nituen. Nire burua ondo ikusten banuen eta Munduko Txapelketara joateko maila egokia ikusten bagenuen, baiezkoa emango niola esan nion.

Eta hala izan da.

Uda ez da izan nik nahi bezain ona. Alergiarekin eta asmarekin arazoak izaten ari naiz, baina erlojuaren aurka oso gustura aritu naiz itzulietan, eta horrekin animatu egin naiz. Egia da 27 kilometroko proba dela eta inoiz ez naizela hain distantzia luzeetan aritu. Hamabost eta hogeik kilometro bitarteko erlojupekoetan maila ona eman dezaket, baina gaur egun ez dakit 27 kilometrotan nola ibili naitekeen. Ilusio eta gogo handiarekin noa, baina erlojuaren kontrako proban zorteak ez du zerikusirik. Bakoitzak balio duena erakutsi behar du. Munduko onenekin topatuko naiz, eta ikusiko dugu nola aritzen naizen.

Erlojuaren kontrako 27 kilometro horiek lauak dira?

Bai, proba lau da. Errepidekoa ere lau da, baina 140 kilometro ditu eta luzea egiten zait niretzat. Horregatik erabaki dut bakarrik erlojuaren aurkakoa aritzea. Beraz, ilusio guztiak horretara bideratuko ditut eta ea zer ateratzen den.



HITZA

Helburu zehatzik ba al duzu astearteko?

Denek esaten dute proba oso gogorra izango dela. Indartsuenak dominen lehian ariko dira, eta besteak nola aritzen garen ikusi beharko da. Ez dut helburu finkorik, batez ere ez dudalako ezagutzen distantzia horretan nire gorputzak nolako erantzuna izango duen. Ez daukat datu objektiborik jakiteko zer egingo dudan, beraz, nahiago ezer ez esatea. Erlojuaren kontrakoan asko sufritzen da, eta ea gustura uzten nauden egiten dudan lanak.

Erlojupekoak egin izan dituzu udako denboraldian?

Debabarrena taldearekin aritu naiz errepideko denboraldian eta zenbait itzuli egin ditugu. Eta horietan erlojuaren kontrako probetan aritu naiz gustuen. Nik uste dut egun errendimendu egokiaren horietan eman dezakedala.

Eta orokorrean zer balantze egiten duzu udako denboraldiari buruz?

Normalean osasuna alde izaten dut, baina ez da izan uda egokia goreneko errendimendua emateko. Helburua pistarako prestatzea izan da, eta tarteka, aukerata izan dudanean eta sentsazioek lagundu didatenean, saiatu izan

naiz zerbait egiten. Erregularra izan naiz. Bi itzulietan aurreneko hamarretan izan naiz. Lau egunetako itzulietan horrela aritzea oso positiboa izan da. Eta horrekin batera orain Munduko Txapelketan ariko naiz. Errepidean aritzeak, pistako tentsioetatik aparte, negura begira oxigenoa ematen diti psikologikoki.

Behin errepideko denboraldia bukatuta, pistara itzuliko zara.

Gauzak nahi bezala joan ez arren, egindako lana oso ona izango da pistarako. Gero pistan sartu, eta bi edo hiru asteko lan zehatz bat egin ondoren, Europako txapelketa behar bezala egiteko prestatuko naiz.

Beraz, Europako Txapelketa izango da aurreneko proba garrantzitsuenak.

Bai. Aurten denboraldia ezberdina da, pistako Munduko Txapelketa apirilean izango delako. Lehenetsun guztia Olinpiar Jokoei daukate eta horiek abuztuaren hasieran izango dira. Errepideko lana aprobetxatuz, ziurrenik Europako Txapelketan egongo naiz eta ondoren Munduko Koparen lehenengo proban ere bai. Gero, denboraldia beste modu batetara planteatuko dut.

Egit denok bideoa
 ezabatu: puztekin ezabatu puztekin, ezabatu haurkin

MANIFESTAZIOAREN BABESLEAK:

SINDIKATUAK:

LAB
 HIRU
 ESK
 STEE-EILAS
 EHNE

ALDERDI POLITIKOAK:

Ezker Abertzalea
 Alternatiba
 Eusko Alkartasuna
 Aralar
 Abertzaleen Batasuna

MUGIMENDU SOZIALAK:

Lokarri
 Bilgune Feminista
 Euskal Herrian Euskaraz
 Bai Euskal Herriari
 Euskal Herriak Bere Eskola
 Askapena
 Gazte Independentistak
 Gazte Abertzaleak
 Iratzarri

AKTOREAK:

Ainara Unanua-Arizmendi
 Ainara Tolosa
 Aiora Zulaika
 Amets Martinez de Heredia
 Ana Villate
 Andrés Bezares
 Ane Zabala
 Arantza Fernández Arrieta
 Asier Hormaza
 Belem Nevado
 Carlos Gil
 Catherine Merchand
 Charly Méndez
 Chuse Alaga
 Eduardo Gaviña – Yogurinha Borova
 Eliot Beato
 Eneritz Arretxe
 Eñaut Garitxei
 Galder Pérez
 Gorka Zubeldia
 Gotzon Sanchez
 Itziar Irujo
 Itziar Rekaide
 Jaizbel de Herrero Vergara
 Jaime Secane Alba – Caprichossi
 Jose Mari Agirretxe
 Jurgi Madariaga
 Kepa Oiarreta – Nenita Danger
 Koldo Landaluze
 Las Fellini
 Lur Kortia
 Marixa Osas
 Mikel Insausti
 Nahia González
 Olatz Elzaberría
 Oskar Delgado – Nagore Gore
 Pake Revueillas
 Patxi Biskert
 Pilar Guerra
 Ramon Agirre
 Txubio Fernández de Jauregi
 Ugaitz Alegria

BIHAR DENOK DONOSTIARA

Abian dira goma paletako ezker hormako eta elkartearen arteko txapelketak

Gaur pilota partidak izango dira Bidegoianen, Tolosan, Alegian, Anoetan, eta Amezketan

R.C. Tolosa

Ikasturtearekin batera abian dira jada, pilotako hainbat txapelketa ere.

Atzo Ezker Hormako Gipuzkoako Elkartearen Arteko Txapelketako modalitate guztietako partidak hasi ziren, eta gaur bertan, neska nagusien Gomazko Paleta-ko Ezker Hormako Gipuzkoako Txapelketa hasiko da.

Lehenengoari dagokionez, gaur 19:00etan Azkoitia-Aurrera Saiatz 3 ikusi ahal izango da. Ordu berean Bidegoianen Aurrera Saiatz 2 Aurrera Saiatz 1en aurka ariko da, Aurrera Saiatz 1 Intza 2ren kontra, eta bukatzeko, Aurrera Saiatz 2 eta Lapke 1 ariko dira. 20:00etan aldiz, Tolosan, partida hauek izango dira: Aurrera Saiatz 2-Aurrera Saiatz 3, eta Aurrera Saiatz 1-Aurrera Saiatz 2. Ordu berean, Alegian Intxurre-Urrietaren arteko lehia izango da, eta Anoetan herriko Su-Berri 1 eta Su-Berri 2ren artekoa. 20:15ean Erreterian Eple 2-Intxurre izango da, Amezketan 21:00etan Zazpi Iturri-Eibar, eta Zazpi Iturri-Hernani.

Bihar Andoainean 10:00etan partida hauek egongo dira: eskuz binakako jubenilen lehen mailako Gazteleku-Intxurre eta hirugarren mailako Gazteleku-Intxurre. Tolosan ordu berean partida hauek egongo dira: Aurrera Saiatz-Usurbil, Aurrera Saiatz 2-Ilunpe 2, eta Aurrera Saiatz 1-Murumendi.

Ordu berean Hernanin Hernani 1- Zazpi Iturri egongo da. Igandean, Usurbilen, 10:00etan Usurbil 2-Zazpi Iturri 1 egongo da, Bergaran Bergara-Aurrera Saiatz 2, eta Villabonan Luzaz Gazte-Berhar Zana.

Bestalde, gaur hasiko da, 20:00etan, neska nagusien lehen mailako Ezker Hormako Gipuzkoako Txapelketa. Sei taldek hartuko dute parte txapelketan eta denek denen aurkako ligaxka jokatuko dute urriaren 16a arte. Fianala urriaren 23an izango da.

Lehen jardunaldia, hortaz, asteburu honetan izango da. Gaur 20:00etan Anoetan Su Berri 1-Su Berri 2 izango da, eta bihar ere bi partida izango dira: 10:00etan Hernanin Hernani 1-Hernani 2, eta 17:00etan Orion Orio-Real Sociedad.



Goiatzen egingo den azokan, aurtan ere tolarea jarriko dute. S. GOMEZ

Bertso-kantu afarian 70 lagun inguru bilduko dira

Bihar hasi eta hilaren 25a arte, kultur astea antolatu du udalak eta kultur taldeak, hainbat jarduerekin

Imanol Garcia Bidegoian

Udala eta kultur taldearen artean antolatu dute aurtengo kultur astea. Bihar bertan hasiko da, bertso-kantu afariarekin. 70 lagun izango dira Iker Zubeldiaren bertsoak eta txiste kontalarien jarduna entzuten, Jaione Elola Kultura zinegotziak azaldu duenez. Horrez gain, abesti zaharren orriak zabalduko dira jendearen artean, denak batera abesteko.

Datorren astean izango dira kultur asteko beste jarduerak. Asteartean, esaterako, Gipuzkoako *Mendiz mendi, mendez mende* egitasmoaren autobusa izango da; haurrek ipuin kontaketa en-

tzuteko aukera izango dute, eta Jose Luis Kortarekin solasaldia-ekin bukatuko dira egunekoak. Ikasleek galdera prestatuko dituzte eta joaten diren beste herri- tarrek ere galdetzeko aukera izango dute.

Osteguneko hitzaldian internet izango da hizpide. Sarean sareak izan ditzakeen arriskuei buruz ariko da hizlaria. «Egun pil- lean dagoen gaia da eta gurasoei interesgarria iruditua zaie», azaldu du Elolak.

Hurrengo ostiralean patata tortilla lehiaketa egingo dute. «Gero eta jende gehiagok parte hartzen dute», esan du Kultura zinegotziak. Kultur asteko azken bi egunetan, besteak beste, larunbatean haurrek mural bat margotuko dute Bidaniko frontoiaren atzeko paretan, eta igandean Goiatzen azoka egingo dute. Bertan, hainbat postu izango dira, tartean herri- tarrek elkarrena artean jarriko dutena.

↓ Egitaraua

IRAILAK 17, LARUNBATA

■ **21:00.** Bertso-kantu afaria Goiazko frontoian.

IRAILAK 20, ASTEARTEA

Egun osoan, Gipuzkoa *Mendiz mendi, mendez mende* egitas- moko autobusa.

■ **16:30.** Haurrentzat *Ahozko tradiziozko zenbait ipuin* konta- kizuna.

■ **21:00.** Jose Luis Korta Kaikuko entrenatzailearen hitzaldia, udaletxeko areto nagusian.

IRAILAK 22, OSTEGUNA

■ **21:00.** Interneten arriskuak hitzaldia balio anitzeko zentroan.

IRAILAK 23, OSTIRALA

■ **19:00.** Patata tortilla lehiaketa Bidaniko frontoian, herriko trikitilarien emanaldiarekin.

IRAILAK 24, LARUNBATA

■ **15:00.** Haurrentzat ekintzak: mural artistiko bat margotzea, Poxpolo eta Konpainiaren emanaldia eta txokolatada.

■ **16:30.** Mus txapelketa Saiatz elkartearen.

■ **22:00.** *Xentimorik gabe* antzez- lana Goiazko frontoian.

IRAILAK 25, IGANDEA

Goizean, azoka Goiazko fron- toian.

Hilaren 25ean izango da 'Ibarra, Azoka eta Piparra' azoka berezia

Astelehenean bukatuko da Ibarra-ko Piparraren Euskal Herriko VII. Lehiaketan izena emateko epea

Rebeka Calvo Ibarra

Hilaren 25ean izango da Ibarra, Hauspoa kultur elkarteak urtero antolatzen duen *Ibarra, Azoka eta Piparra* izeneko azoka bere- zia. Hauspoa elkarteko kideek azaldu dutenez, «herriko nekaza- ritzari eta abeltzaintzari bultzada emateko asmoz herriko baserri- tarren ganadu zein produktuak ikusgai izango dira bertan, ga- raian garaiko eta bertakoa ezagu- tzea emateko asmoz».

Horiek horrela, bertan izango dira hainbat arrazetako behiak, behorrak, astoak, Euskal Herriko arrazako txerriak, ardiak, ahun- tzak... Eta baita herriko barazki eta fruituak ere, garaian garaiko produktuak zein diren agertuz eta hauek kontsumitzearen alde- ko apustua egitera animatuz.

Lehiaketak

Urteroko moduan aurtengoan ere eskualdeko XIV. Ezti Lehiaketa egingo dute, bertaratzen denak ezitia dastatzeko aukera izango

duelarik, eta Xepla elkarteak ere Ibarra-ko Piparraren Euskal Herriko VII. Lehiaketa gastronomi- koa antolatu du. Ohi bezala parte- hartzaileek piperrada bat presta- tu beharko dute, beharrezko izanik Ibarra-ko piperra sartzea osagai modura eta 6 pintxo berdi, hotz nahiz bero, egin beharko di- tuzte nahi duten osagaiekin, bai- na beti ere piperra nagusi dela. Sukaldea, butanoa nahiz beha- rrezko osagaiak (piperra, piperr- berdea eta gorriak eta tipulak) an- tolatzaileek banatuko dituzte. Sariei dagokionez, plater bakoit- zarentzako sariak txapela, garai- kurra eta 200, 150 eta 120 euro izango dira lehen hiru sailkatuen- tzat.

Izen ematea

Izen emateko epea astelehenean, hilaren 19an, amaituko da eta ho- rretarako Benito Izagirre kultur etxera jo behar da. Izena emateko garaian honakoak adierazi behar dira: sukaldariaren izen-abize- nak eta laguntzailearenak, hala- korik balego, nongoa den, telefo- no zenbakia eta elkartearen ize- na, halakoren izenezan baldin badator. Era berean, artisau uga- riren lanak ikusi eta erosi ahal izango dira, eta aurtien haurrek kamisetak eskuz margotzeko au- kera ere izango dute.

→ Laburrak

60 urtetik gorako herritarrentzat bidaia

AMEZKETA » Udalak bidaia antolatu du 60 urtetik gorako- entzat San Migera. Hilaren 29an izango da. Izena emateko hilaren 20, 21 eta 22an egin dai- teke, 09:00etatik 14:00etara, udaletxean. Txartelaren prezioa 27 euro pertsonako da. Irteera 08:30ean egingo dute. Hamai- ketako txiki bat egingo dute eta ondoren Astitzera joango dira bertako kobak bisitatzera. 14:30ean bazkaria egingo dute Mugiron eta etxerakoan geldiu- nea egingo dute.

Odol ateratzeak egingo dituzte hilaren 20ean

AMEZKETA » Odol ateratzeak egingo dituzte Amezketan, hila- ren 20ean. Kultur etxeko areto- an izango da, 18:30etik 20:30era. Ohiko odol emaleez gain, lehenengo aldiz eman nahi dutenei ere deialdia luzatzen diete.

Euskal Jaia antolatzeko bilera, astelehenean

ANOETA » Euskal Jaia antola- tzeko hurrengo bilera astelehe- nean, hilak 19, izango dela jakin- narazi du udalak. 18:00etan elkartuko dira udaletxean eta udalak dei egiten die herriko taldeei eta herriar orori bertan parte hartzera.

Txontxo ludotekan izena emateko aukera zabalik

IBARRA » Hilak 19, 20 eta 21ean egin ahalako da Uzturne Ikasto- lak kudeatzen duen Txontxo ludotekao izen-ematea. Azkue azoko 9. zenbakian dago ludo- teka eta 3 eta 8 urte arteko haurrentzat da.

Udalak Euskal Herria Egunarekin bat egin du

IBARRA » Udalak jakinarazi duenez, bat egin du biharko Euskal Herria Egunarekin, hau da, «herriak senidetuta Eus- kal Herria garelako aldarrikatzea- rekin». Era berean, herriar guz- tiak gonbidatu ditu jai egunean parte hartzera.

Mikel Nieve ◉ Txirrindularia

Bukatu berri den Espainiako Vueltan hamargarren sailkatu da txirrindulari leitzarra, lehen euskalduna izan delarik; «oso gustura» dago profesional mailan dagoenetik lortu duenarekin.

«Orain arte lortutakoak bide beretik jarraitzeko konfiantza ematen dit»

Iñigo Terradillos Leitza

Profesional mailan lehiatzen ari denetik ibilbide polita ari da egiten Mikel Nieve (Leitza, 1984) txirrindularia. Espainiako Vuelta bukatu berri da, eta hamargarren sailkatzea lortu du Euskal-Euskadi taldeko leitzarrek. Pasa den urtean itzuli berean hamaikagarren amaitu zuen. Aurtengo Giroan, berriz, hamaikagarren sailkatu da. Urteak urtera maila handiagoa ari da ematen, bere izena onenen artean azaltzen ari delarik. «Oso gustura» dago orain arte egindakoarekin, eta horrek konfiantza ematen diola dio datorren denboraldian ere bide beretik jarraitzeko.

Zer balantze egiten duzu Espainiako Vueltaren zure parte-hartzeaz?

Balantze oso ona. Lehenengo hamar postuetan sartzea zaila izaten da, beraz, oso gustura nago.

Zein izan da zure helburu nagusia bertan?

Hasieran nire eginkizun nagusia Igor Antoni laguntzea zen. Azkenean, ordea, Antonek, hainbat arazo tarteko, ezin izan zuen bere maila eman. Ondorioz, sailkapen nagusian jokatu beharra izan dut, eta horrek etapa bat lortzeko aukerak gutxitu dizkit. Baina, ni oso gustura ari naiz.

Igor Anton zen taldeko faborito, baina ez da posible izan.

Berak ez du bere burua ongi ikusi, eta guk aurrera jo behar izan

dugu. Vuelta hasi eta segituan ikusi zen ez zegoela irabazteko moduan, beraz, egoerari aurre egiten saiatu gara, eta nik uste dut lortu dugula. Igor Anton berak ere bere egoerari buelta ematea lortu du, etapa bat ere irabaziz, Euskal Herrikoa, hain zuzen ere.

Itzulia irabazteko faborito zirenak ez dira podiora igo. Juan Jose Cobo, Christopher Froome eta Bradley Wigginsek osatu dute lehen hirukoa.

Faboritoak ez dira beraiei mailarik onenean egon, eta azkenean beste batzuk nagusitu dira. Azken horiek oso indartsu zeudela ikusi da, eta zoriondu egin behar zaie egin duten lanarengatik.

Emozio handiko Vuelta izan da aurtengoa, besteak beste, amaierara arte ez delako erabaki nor izango zen garailea.

Hala da. Desberdintasun txikia egon da lehenengo sailkatuen artean, eta azken egunera arte emozio handia mantendu da. Horrengatik aurtengo Vuelta oso polita izan da.

33 urteren ondoren Euskal Herriatik igaro da Vuelta. Nolako etapak izan dira?

Oso politak. Zaleak oso ongi portatu dira gurekin, txirrindulariak animatuz. Ez dut buruan hainbeste zale bildu dituen beste etaparik, jendetza atera zen kalera. **Leitzako itzulera nolakoa izan da?**

Beti bezala, oso ona. Irrikaz nengoen herriko jendearekin, lagu-

nekin eta etxekoekin egoteko. Oso pozik itzuli naiz.

Vuelta amaitu da, eta orain atsedean hartzeko baliatuko dituzu egun batzuk, edo txirrindu gainean jarriko zara segituan?

Orain egun batzuk hartuko ditut atsedean pixka bat hartzeko. Urriko lehen astean Txinara joango

«Vuelta oso polita izan da, azken egunera arte emozio handia mantendu baita»

«Datorren denboraldiari begira garaipen bat lortzea oso handia litzateke»

naiz, hango lasterketa batean parte hartzera, eta handik Italiara, Lombardiako Giroan lehiatzera. Hori izango da denboraldiko azkena. Urriaren 15ean amaituko dut aurtengo txirrindulari denboraldia.

Hurrengo denboraldirako erronkarik jarri al diozu zure buruari?

Ez. Denboraldiko azken bi lasterketa horiek ongi egitea da orain nire asmoa. Datorren denboraldirako ez dut deus pentsatu oraindik. Orain buruan dudana atsedean hartu eta indarrak errekupe ratzea da.

Zer irabaztea litzateke zuretzat handiena?



FUNDACIÓN CICLISTA EUSKADI

Ez dakit. Egia esan, irabaztea gustatuko litzaidakeen txapelketa asko daude. Aurtun egin dudana ere oso gustura nago. Niretzat urtean garaipen bat lortzea oso handia litzateke.

2008. urtetik ari zara profesionalen lehiatzen. Ordutik, urtetik urtera gora ari zara egiten. Azkena, aurtengoa oso urte ona izan da. Zer balantze egiten duzu profesional mailan egin dituzun lehen urteez?

Oso gustura nago. Urteak urtera maila hobea ari naiz ematen. Iazko urte bukaera oso ona izan nuen eta aurtengoa ere horrelakoa izan da. Horrek guztiak kon-

fiantza ematen dit datorren urtean ere maila horretan jarraitzeko. **Egungo txirrindularietako bat nabarmenduko al zenuke bereziki?**

Txirrindulari mota asko daude. Hiru asteko iraupena duten itzuli handietarako argi dago Alberto Contador dela onena. Bestalde, aurtun egiten ari den denboraldiarengatik Philippe Gilbert aukeratu nuke.

Txirrindularitzan hasi zinenean zein txirrindulariren jarraitzaile zinen?

Garai haietan Migel Indurain izan zen txirrindularitzan hasi ginen gazte guztientzat eredu.

◉ leitzaldea@hitza.info

◉ **Hilberriak****ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info- I. URTEURRENA -
JOXE ONDARRETXE ORMAETXEA

Urtebete da ez zaudela gure aldamenean, egunero zaudela ordea osaba, gure oroitzapenean.

Zure familia

Urtebetetze meza igandean, goizeko HAMAIKETAN, izango da BERROBIKO SAN ANDRES elizan.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irua, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzea, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Bronte, C. I.
Korreo kalea, 20.
943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Azpiroz M.A.
Aralar kalea, 43.
112.

BIHAR

- **Tolosa.** Santamaria, I.
Nafarroa etorbidea, 2.
943 65 46 10.
- **Lekunberri.** Azpiroz M.A.
Aralar kalea, 43.
112.

ETZI

- **Tolosa.** Ollarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Azpiroz M.A.
Aralar kalea, 43.
112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Ollarreaga, M.
Martin Jose Iraola, 10.
943 67 24 38.
- **Leitza.** Erbiti, O.
Lizarraga kalea, 7.
112.

HITZAK ez du bere gainhartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Garagardo Festa
Zerkausan igandea bitarte.
18:00etatik 00:00etara
egongo da zabalik.
- **Tolosa.** SOS Haur Lapurtuak
elkarteak batzarra egingo du
bihar, 10:30ean Kultur Etxean.
- **Ibarra.** Euskal Herria Eguna,
bihar: 09:45ean hasiko da jaia
herriko sarreraren egingo den ha-
rrerarekin, ondoren kalejira izan-
go da; 11:00etan hamaiketako
egingo dute Araneko iturrian;
12:00etan herrien arteko ginka-
na izango da; 13:00etan ekital-
dia; 14:00etan bazkaria;
16:00etan Lip-duba, eta ondo-
ren, kalejira poteoa Elektrotxa-
rangarekin; 21:00etan Lip-du-
baren estreinaldia egingo dute;
eta bukatzeko, 22:00etan kont-
zertuak izango dira: Dolce Tan-
gana eta Bide Bakarra.
- **Leitza.** Natur bideen Europa-
ko eguna dela eta, Plazaola Pa-
tzurgoak VIII. Mendi Bizikleta
Martxa eta V. Maratoi Erdia an-
tolatu ditu igandera. Mara-
toaia 09:30ean hasiko da Urtotik
eta 21 kilometrotako ibilbidea
egingo dute. Bizikleta martxa
aldiz, 10:00etan hasiko da An-
doainen, beraz, Lekunberritik
09:00etan irtego dira txirriri-
ndulariak kamioietan Andoaine-
ra joateko.
- **Tolosa.** Eusko Alkartasuna al-

derdiak bere 25. urteurrena os-
patuko du Lizarran, igandean.
Bertaratzeko autobuserako
edota bazkarirako izena eman
nahi duenak 626 775 648
(Angel) edo 607 690 403
(Mikel) telefono zenbakietara
deitu behar du.
- **Tolosa.** Alliri auzoko hilaren
24ko bazkarirako txartelak
Alliri tabernan eskuratu daitez-
ke hilaren 18a arte. Helduek 15
urte ordaindu behar dute, eta
haurrek 6 euro.


MUSIKA

- **Tolosa.** Hodei abesbatzaren
kontzertua bihar, Eduardo
Mokoroa musika eskolan
19:30etik aurrera.

ZINEMA

- **Tolosa.** *Toro Salvaje* gaur,
19:15ean eta 21:45ean Zine Fo-
rumaren barruan. Bihar berriz,
*Harry Potter y las reliquias de la
muerte* eskainiko dute
19:30ean, eta 22:30ean *La
boda de mi mejor amiga*ren
txanda izango da. Igandean
*Harry Potter y las reliquias de la
muerte* 17:00etan ikusi ahal
izango da, eta *La boda de mi
mejor amiga*, aldiz, 19:30ean.
Astelehenean, ikuslearen egu-
na, *La boda de mi mejor amiga*
ikusi ahal izango da 20:30ean.

Irudia XIV. HITZA Argazki Lehiaketa



TXIAPAS ETA KENIATIK

Lehen bi argazkiak Larraulgo Olga eta Aitorrenak dira. Txiapaseko Lacandona oihanean egon direla diote eta bigarren irudian, Aito-
rrek, «beste zenbait gauzen artean oraindik dauden txirotasuna eta
arazo sozialak» ikus daitezkeela dio. Hirugarren argazkia Mertxe
Esnaola tolosarrarena da, bertan Keniako Nakuru parkean dauden
lehoiak ikusi daitezke. O.-A.-M.E.

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

**Bertako informazioari
bertako produktuak**

**Egin HITZAren
harpidedun**
urriaren 31 baino lehen
eta jaso
artxai gazta,
Idiazabal
jatorri izenarekin,
OPARI



hitza info

Harremanetarako:

902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Hitzaren harpidedunen artean,
azaroaren 2an,
asteburu bat zotz egingo dugu
Aireberria Hotelaren eskutik.

www.aireberria.com



*Saria 2011n erabili behar da.